

Euskararen Kontseilu Sektoriala Ohiko Bilkura

Data eta lekua	2025eko otsailaren 25ean Urumea gelan (Udaletxea, Ijentea kalea)
Hasiera eta amaiera ordua:	18:00 – 20:15

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARITZA: Jon Insausti_EAJ-PNV (Kulturako, Euskarako eta Turismoko zinegotzi ordezkaria)
EAJ
PSE
EH Bildu
PP
ELKARREKIN DONOSTIA

Elkarteak, Hiritarrek eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

HEZTEN
BAGERA ELKARTEA
BATZEN
BIZARRAIN
San Sebastián SHOPS
LABORAL KUTXA
KUTXABANK
IRUTXULOKO HITZA
GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

Euskara Zerbitzuko langileak:

Euskara Zerbitzuaren burua
Euskara Zerbitzuko Hirirako Hizkuntza Normalizaziorako Atalburua
Euskara Zerbitzuko Teknikaria/Kontseiliuko Idazkaria

SIADeco: bi kide

FARAPI: kide bat

EZ DIRA BERTARATU:

AEK (ezin etorria adierazi du)

Farapi kooperatibako ikertzailea aritu da, genero-berdintasuna ardatz hartuta, behaketa egiten saioan zehar. Besteak beste, ondokoak neurtu ditu: gizonen eta emakumeen bertaratzeak, hitzartzeak eta hauen iraupenak. Modu anonimoan eta izenarekin identifikatu gabe.

Ikerketa amaitu ondoren, informazio hori guztia txosten batean jasoko da, Kontseilu bakoitzaren laburpenak egingo dira eta hobetzeko estrategiak proposatuko dira.

1. 2024ko azaroaren 12ko bileraren akta onartzea

Aurreko bileraren akta aho batez onartu da.

2. Datozen urteetarako Donostiako Euskararen Plan Orokorren diagnostikoa osatzeko oinarrietako bat izango den *Donostiako Datu Demolinguistikoen Bilakaeraren Prospekzio-Ikerketaren aurkezpena*.

Aipatu ikerketa-lana Siadeco enpresak egin du eta bertako teknikariek, egingo dute aurkezpena. Baina hori baino lehen, Kulturako, Euskarako eta Turismoa zinegotzi ordezkariak ikerketa-lanaren zergatia azaldu du: *“Donostiako Euskararen Plan Orokorra berritzeko urratsak egiten ari gara. Aurreko planak 2020-2024 indarraldia izan zuen eta hurrengo diseinatzen hasi aurretik, garrantzitsua iruditzen zitzaigun bost urteko begirada ez ezik, 10 urteko begirada kontuan hartzea eta 10 urtera begira hiriko egoera demografikoa eta demolinguistikoa zein izan daitekeen aurreikustea. Gaur egunera arteko joerak oinarri hartuz, 2036ra bitarteko argazki bat edukitzea da helburua”*.

Siadecok egindako diagnostikoa oso dokumentu erabilgarria dela adierazi du, eta ezinbestekotzat jotzen duela ikerketaren datuak kontseiluko kideei ezagutaraztea.

SIADECO enpresako teknikariek datozen urteetarako Donostiako datu demolinguistikoek izan duten bilakaeraren prospekzio-ikerketa aurkeztu dute. Azterlan hori izango da Donostiako hurrengo Euskararen Plan Orokorren diagnostikoa osatzeko oinarrietako bat.

Aurkezpena amaitu ondoren, eta gai-zerrendarekin jarraitu baino lehen, lehendakariak galderaren bat egingo du aukera luzatu die bertaratutakoei.

HEZTENeko ordezkariak adierazi du oso interesgarria iruditu zaiola ikerketa-lana, baina datuek kezka ere sorrarazi diotela: *“Azken urteotan soziolinguistikan edo behintzat euskalgintzan asko erabili den teoria da euskararen ezagutzaren unibertsalizazioa belaunaldi berriei iritsiko dela eta ikerketa honek ez du hori erakusten. Azken urteotan erabili diren teoria horiek, hau da, D eredua orokortuz ezagutza bermatuko genuela ez da ikusten 10 urteko prospekzio honetan. Agian ikerketak haratago joan behar luke”*.

SIADECOko Juanjo Allurrek erantzun dio 25 urtetik gorako etorri berri asko izango ditugula, hezkuntza-sistemak harrapatzen ez dituenak. Aurrerabide nabarmenak izan dira azken 30 urteetan ezagutzaren transmisio kulturalari esker, (transmisioa eskolaren bitartez eta euskaltegi bitartez). Irakaskuntzan ikasketa prozesu osoa egon delako eta transmisio kultural hori egon delako eusten zaio euskararen ezagutzaren indize orokorrari batez ere adin batetik gorakoetan. Orain demografiak erronka berriak planteatzen ditu eta hori da proiektzio honek erakusten duena.

HEZTENeko ordezkariak eskertu egin du egungo argazkia erakustea, «argazki horrek beste errealitate bat erakusten duelako, eta oso baliagarria delako non lan egin behar dugun jakiteko».

ELKARREKINeko ordezkariak ere eskerrak eman ditu eta aurkezpena oso interesgarria eta egokia iruditu zaiola adierazi du. Ikusirik elebidun gehienak erosoago sentitzen direla gaztelaniaz, euskaldunak ama-eta etxe-hizkuntza gisa gaztelaniarekin orekan kokatzeko joerak nondik datozen identifikatzeko modurik ba ote dagoen planteatu du.

SIADECOko Juanjo Allurrek erantzun dio une honetan ez dagoela hori jakiteko adina informaziorik. Eusko Jaurlaritzak bost urtean behin egiten duen inkesta soziolinguistikoaren Donostiako lagina ez da nahikoa azterketa hori egiteko. Gaineratu du erronka bat dela euskara kulturalki jaso dutenak noiz bihurtuko diren euskararen transmisore natural jakitea.

Horren harira, lehendakariak aipatu du Donostiaren barruan arnasmune funtzional kontsideratu daitezkeen auzoak badaudela, horiek tendentziaren arabera mantendu pitin bat jaitsi egin dira, aldiz, hain euskaldunak ez direnak euskaldun horiek dira baina oso maila txikitik abiatzen zelako ere, abiapuntua oso bajua zelako, eta asuntua hartu dute baina gero ezagutzaren barruan gaitasun asko daude

SIADECOko kideak mahaigaineratu du behetik hasitakoek gehiago handitu dute ezagutza hori, inkestaren eta estatistikaren arabera une honetan euskalduntzean sartzen diren auzo horietan, erdaldunak izan ohi

diren auzo horietan euskaldun elebidun gutxiago egongo dira euskaldunen artean. Beherago zegoenak aukera gehiago ditu, ibilbide luzea duelako eta hori gertatzen ari delako, eta hori positiboa da, aurrerapauso bat da; horrek testuinguru horietan euskararen erabileran nahikotasuna bermatzen du.

BATZENeko ordezkariak aipatu du oraindik ere Donostian, A eta B ereduak jarraitzen duten bitartean, gazte ez euskaldunak ari garela sortzen.

EAJko ordezkariak adierazi du lan bikaina iruditu zaiola Siadecok egin duen prospekzio ariketa. Bere ustez oso bat dator inkesta soziolinguistikoak dioenarekin, erabileraren neurketak egin direnean ikusi dugunarekin edo mapa soziolinguistikoak dioenarekin, ez du sorpresarik hartu gaur aurkeztutako datuekin.

Hezkuntzan aztertu zuen orain biztanleria atzerritar jatorriko etorkinak direla eta jatorri beretik jaio zirela, gurasoengandik etxean jasoko dute. % 52 Erdialdeko Amerikatik eta Hego Amerikatik datoz eta gaztelania jaso eta transmitituko dute. Hori alde batera utzita, SIADECOK ez du horrelako daturik, horrek azterketaren espezifikoa eta bestelako galderak eskatuko bailituzke.

Esate baterako, Arrue ikerketa bi une desberdinetan egindako inkestetan oinarritua dago: Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan, eta hor galdetzen zaie zer hitz egiten duten gela barruan irakaslearekin, zer hitz egiten duten ikastetxetik kanpo, zer hitz egiten duten jolasean, zein hizkuntzetan egiten duten aisialdia... Eta datu hobeak dira 4. mailakoenak DBHko 2.mailakoenak baino. Ikerketa honek erakusten du 14 eta 15 urte bitartean euskara maila hobe dela eskolatik kanpo aisialdiko jarduerak euskaraz egiten dituztenen artean. Eta horretan asko azpimarratzen du Kike Amunarrizek, "neurri handi batean D ereduak orokortu dugu, D ereduak ere orokortu dezagun aisialdian". Eta horretarako gurasoen konplizitatea behar da.

Iñaki Iurrebasoren tesian ere jasotzen da aisialdiak duen garrantzia, izan ere, euskara etxean jasotzeaz gain, gizarteak ere ematen dizu, hori da hizkuntza sozializazioa eta hor berebiziko garrantzia du aisialdiak.

HEZTENeko ordezkariak ikerketa bat aipatu du, non atzerritar jatorriko biztanleen jatorria esanguratsua den, hegoamerikarrek euskararekiko duten interesa beste lurralde batzuetatik datozenen aldean desberdina baita. Gaztelaniarekin datozenek ez dutelako horrelako beharrik sentitzen.

EAJko ordezkariak azken horri gehitu dio, bestaldetik kontutan izan behar dela atzerriko beste hizkuntza batekin badatoz eta gainera gaztelaniatik urrun xamar dagoen hizkuntza batetik badatoz, horrek ere erreztu egiten du diferentia den hirugarren hizkuntza batetik segregatzea.

Jarraian, ELKARREKINeko ordezkariak aipatu du azken bost urteetan euskaltegietan matrikulatu ez diren EAEko herritar helduen arrazoiak aztertzeke ikerketa. Adierazi du ikerketa honetan jasotzen diren datuak argazki finko bat direla, donostiarrena eta kanpokoena. Aztertzeke modukoak eta oso lagungarriak direla azaldu du.

BIZARRAINeko ordezkariak esan du datuak ikusita zalantzak sortu zaizkiola, badakiela datuen proiektzioa dela eta gertatuko dela zerbait egiten ez bada edo zerbait desberdina egiten ez bada, hor dagoela bere kezka. Egoera ikusita, Administrazioetik eta euskalgintzatik, datu hauekin herri euskaldun hau mantendu nahi badugu zerbait egin behar da, hausnarketa sakon bat egin behar da. Datuek ispi luaren aurrean jarritzen gaituzte, hau gertatzen ari da eta hau gertatuko da. Gogoeta egin behar da, eta ez bakarrik atzeritik etorri direnen eraginagatik, nahiz eta azken hori ere presente egon.

3. Euskararen Kontseilu Sektorialaren 2025eko bileren egutegiaren eta aztergaien proposamena

Euskara Zerbitzuko buruak argitu du kontseilu sektorialeko kideei idatziz bidali zaiela 2025eko bileren egutegiaren eta aztergaien proposamena, eta aurreikuspen bat dela. Beti bidaltzen da, hiru aste edo hilabete lehenago proposamenak egiteko aukera. Zehazki, bilera honetarako, ELKARREKINeko ordezkariak, "Udalaren hizkuntza-eskakizunei eta derrigortasun-datei buruzko 2024ko eta 2025eko epaiei buruzko informazioa jasotzea" eskatu zuen baina hori oraindik lantzen ari dira eta Euskara Zerbitzutik komenigarriagoa ikusi dute kontseilu sektorialaren hurrengo bileraren baterako uztea.

Bestalde, prozesua plan orokorraren esparrua marrazten eta parte-hartze prozesua diseinatzen hasi da. Beraz, jakinarazi die Kontseilu Sektorialaren iritzia ere nahi dutela, eta planteatu nahi dutena galdetegi bat izan dadila, guztiei emango lieketela, eta gero hausnarketa-talde pare bat sortuko dituztela, parte hartzera deitu dituztenak. Elhuyarrek prozesua burutu du eta hurrengo egunean, 26an, prest dutela bilera urrats guztiak zehazteko, eta litekeena da saio bat ere egitea, elkarriketaren bat hasiera batean, eta ondoren hausnarketa saio bat planteatuko diete. Nolanahi ere, ohiko saioetatik aparte izango litzateke.

Halaber, Ekialdeko barrutiarekin planteatu da ere egitea berariazko prozesua.

4. Norberak lekarkeena

BATZENeko ordezkariak mahaigaineratu du, euskararen eguna dela eta, "*Bizkarsoro*" filmaren proiektzioa izan zela, zinemetan, eskoletan ikasleekin eta arrakasta handia izan zuela. Hasiera batean, proiektzioa bi asterako zinematlan botatzea erabaki zen, eta gero, ikusle kopuruaren arabera jarraituko zuela. Azkenik, SADEko arduradunak emandako datuak oso onak izan arren, zinemetako proiektzioa nahi baino lehenago amaitu zen, eta ETB1en eman zen, ia iragarri gabe, ez beste batzuetan proiektzio zabala goa izateko egiten den bezala. Hedapen handiagoa izateko aldarrikapena egin du.

Besterik ezean, bukatutzat eman du bilera lehendakariak 20:15ean.